

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure proposamena baserri eskola bat sortzea da, non haurrak urtean zehar etorriko diren. Ikasturtean zehar ikastolak onartuko ditugu eta udaran zehar sei eguneko iraupena izango duten zikloak egingo ditugu, eta ziklo horietan talde ezberdinak onartuko ditugu, udaleku bat izango balitz bezala. Baina guk ere oporrak izango ditugu, baserri eskola abenduan, urtarrilean eta otsailean itxita egongo da, beraz, hilebete horietan ez ditugu gure zerbitzuak eskainiko. Aste santuan ere itxita egongo gara eta udara guztian zehar funtzionatuko dugu. Baserri eskola honi "Radio" izena ipini diogu, pelikula baten ondorioz, non bertan, inklusioa bilatzea baita gure helburu. Pelikula horren izenburua "Me llaman radio" da eta bertako hainbat ideia isladatu nahi ditugu gure udalekuan.

Baserrian animaliak edukiko ditugu. Animaliei erreferentzia eginez, bertan hainbat animali mota ezberdin edukiko ditugu, batik bat gure eskualdeko animaliak. Mendikoak, baserrikoak... hala nola, zaldiak, txerriak, ardiak, oiloak etab. Bi pixuko baserri bat izango da, non behan egongela, jangela, sukaldea eta gela bat non bertan tailerrak eta barruko ekintzak edo dinamikak egingo ditugun. Baita ere komunak egongo dira, bai neskontzako eta bai mutilentzako. Goiko pisuan, hau da, bigarreanean, logelak egongo dira. Hainbat logela egongo dira eta bertan hainbat ohe, hurrek taldeka lo egin dezaten. Monitoreen logela, hau da, gurea, bertan egongo da baita ere, horrela haurrak kontrolatuko ditugu gauean zehar. Komunak egongo dira beheko funtzionamendu berdina jarraituz. Pisu batetik bestera joateko eskailerak edukiko ditugu eta baita ere igogailu bat, baina igogailu hau norbaitek beharrezkoa badu bakarrik erabiliko du, adibidez, haurren bat badago gurgildun aulkian edo hankean arazoren bat badu. Animalientzako ukuluak edukiko ditugu eta bertan egongo dira, baita ere oilotegia oiloentzat.

Gure lana hurren beharretara egokituko dugu, hau da, beti ere, haurrak izango ditugu ardatz modura. Gure baserri eskola guztiz segurua izango da, beraz, bai gurasoek eta bai hurrek ez dute zertan larritu behar.